DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
Comisión de Servicios a las Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

| 24. AKTA | ACTA N.º 24 |
|---|---|
| **<u>Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea</u>** | **<u>Comisión de Servicios a las Personas</u>** |
| **Batzar mota:** Ohikoa | **Sesión:** Ordinaria |
| **Eguna:** 2025-07-14 | **Día:** 14-07-2025 |
| **Ordua:** 11:17 | **Hora:** 11:17 |
| **Tokia:** Loretope Aretoa | **Lugar:** Sala Loretope |
| **<u>Batzordeburua</u>:** | **<u>Preside:</u>** |
| Jon Markel Ormazabal Gaztañaga | Jon Markel Ormazabal Gaztañaga |
| **<u>Etorritakoak</u>:** | **<u>Asistentes</u>:** |
| **<u>Batzordeko kide diren zinegotziak</u>:** | **<u>Concejales y concejalas miembros de la Comisión</u>:** |
| Jon Insausti Maisterrena | Jon Insausti Maisterrena |
| María Jesus Idoeta Madariaga | María Jesus Idoeta Madariaga |
| Kerman Orbegozo Uribe | Kerman Orbegozo Uribe |
| Sandra Barrenetxea Diez | Sandra Barrenetxea Diez |
| Markel Ormazabal Gaztañaga | Markel Ormazabal Gaztañaga |
| Izar Hernando Ibero | Izar Hernando Ibero |
| Iñigo García Villanueva | Iñigo García Villanueva |
| Vanesa Vélez de Pablos *(11:28an bileran sartu da)* | Vanesa Vélez de Pablos *(se incorpora a las 11:28 h a la sesión)* |
| Arantza González García | Arantza González García |
| **<u>Beste zinegotzi batzuk:</u>** | **<u>Otros/as concejales/as :</u>** |
| Itziar Iturri Arrazola *(12:33an bileran sartu da)* | Itziar Iturri Arrazola *(se incorpora a las 12:33 h a la sesión)* |
| Ane Oyarbide Ochoa | Ane Oyarbide Ochoa |
| Victor Lasa Briz *(11:47an bileran sartu da)* | Victor Lasa Briz *(se incorpora a las 11:47 h a la sesión)* |
| **<u>Beste batzuk:</u>** | **<u>Otros asistentes:</u>** |

12447n II

Jabier Vitoria Roma *(12:30etan bertaratu da bilerara eta 12:32an irten da)*

Jabier Vitoria Roma *(se incorpora a las 12:30 h a la sesión y se retira a las 12:32 h)*

**Idazkaria:** Irune Larrea Sistiaga, Idazkariak eskuordeturik.

**Secretaria:** Irune Larrea Sistiaga, por delegación de la Secretaria General.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- 2025eko ekainaren 16an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 16 de junio de 2024.**

Bozketa egin eta aho batez onartu da 23. akta, 2025eko ekainaren 16an egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba por unanimidad el acta número 23, correspondiente a la sesión celebrada el día 16 de junio de 2025.

**2.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Buenavistako Bizilagunen Auzo Elkarteari lokal bat emateko beharrari buruzkoa.**

**2.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la necesidad de dotar de un local a la Asociación de Vecinos de Buenavista.**

2. gaia 5. gaiaren ondoren aztertu da.

El asunto n.º 2 se trata a continuación del asunto n.º 5.

* * * *

Vanesa Velez andrea oraindik bilkuran ez dagoenez, batzordeburuak 2. gaia atzeratzea eta 3. gaia jorratzea erabaki du.

Al no hallarse presente todavía en la sesión la Sra. Vélez de Pablos, el presidente decide posponer el asunto n.º2 y tratar el asunto n.º3.

* * * *

**3.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Gizarte Ekintzako urteko memoriari buruzkoa.**

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la memoria anual de Acción Social.**

Izar Hernando andreak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

La Sra. Hernando Ibero da por leída la siguiente interpelar:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesús Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente interpelación a María Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Tresna baliagarria da Gizarte Ekintzako zerbitzuen inguruan osatzen den urteroko memoria. Honi esker, gizarte zerbitzuen eskariaren eta eskaintzaren garapena zein den aztertu ahal izaten dugu. Gizarte Ekintzarako aurreikusi diren inbertsioak zein norabidetan egin behar diren argitzeko ere lagungarri izan daiteke memoria hau. Uztailean gaude eta oraindik ez da publiko egin, ordea.

La memoria anual sobre los servicios de Acción Social es una herramienta útil, que nos permite analizar la evolución de la demanda y de la oferta de los servicios sociales, así como para aclarar el destino al que se han de dirigir las inversiones previstas en esta área de Acción Social. Sin embargo, estamos ya en julio y la memoria no ha sido publicada aún.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak

Es por ello por lo que la concejala que suscribe

honako INTERPELAZIO hau egiten du:

• Zer dela eta ez du Udal Gobernuak publiko egin Gizarte Ekintzako urteko memoria?

• Noiz izango dugu eskura?

Donostian, 2025eko uztailaren 4an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Maria Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

* * * *

Jarraian, deialdian gaiak aztertzeko aurreikusi zen hurrenkerari ekin diote berriro.

* * * *

**4.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Aiete ikastetxean sukaldea falta dela eta.**

Izar Hernando andreak interpelazio hau azaldu du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Iñigo García hezkuntzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Aiete Ikastetxea 2016/17 urtean estreinatutako eraikinean dago, Puio kalean txikienentzat dagoen eraikinarekin batera. Arostegi kaleko eraikina, beraz, berria da. Hala ere, berria izanagatik ere, eraikinak baditu bere mugak; izan ere, txiki gelditu da eta liburutegia kendu beharko dute datorren ikasturtean, ikasgela bilakatzeko. Horrez gain, baina, eraikinak badu atera ahal zaion probetxu handiena ateratzen ez zaion espaziorik: jangelaren ondoan, badu gela bat erabiltzen ez dena. Bertako langileek diotenez, badu nahikoa espazio bertan sukaldea jartzeko, eta hartara, posible izango litzateke janaria bertan prestatzea, beste zenbait eskoletan egiten den moduan, honek ikasleei ekarriko lieken onurarekin eta zuzendaritza taldeak hala eskatuta. Horrek, baina, espazioa horretara egokitzeko lanak abiatzea eskatuko luke.

presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

• ¿Cuál es el motivo por el que el Gobierno Municipal no ha publicado la memoria anual de Acción Social?

• ¿Para cuándo estará disponible?

En Donostia, a 4 de julio de 2025

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

* * * *

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**4.- Interpelación, presentada por el grupo EH Bildu, sobre la falta de cocina en el colegio de Aiete.**

La Sra. Hernando Ibero expone la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación a Iñigo García, concejal delegado de Educación, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El colegio público de Aiete se ubica en un edificio inaugurado el curso 2016/17, junto con el edificio destinado a los más pequeños de la calle Puio. El edificio sito en la calle Arostegi es, por tanto, nuevo. Sin embargo, el edificio presenta una serie de limitaciones, ya que se ha quedado pequeño y el próximo curso se verán obligados a eliminar la biblioteca para convertirla en aula. No obstante, el edificio dispone de un espacio al que no se le saca el máximo provecho posible, pues dispone de un aula que no se usa y que se encuentra al lado del comedor. El personal del centro señala que esta aula dispone de espacio suficiente para instalar la cocina, lo que posibilitaría cocinar allí, al igual que en otros centros escolares, con el beneficio que ello reportaría a los alumnos, tal y como lo solicita el equipo directivo. Ello, sin embargo, requeriría la realización de obras para habilitar el espacio como cocina.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

• Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Aieteko Ikastetxean sukaldea jartzen, horretarako jantoki ondoan dagoen espazio hutsa baliatuz?

• Posible litzateke datorren ikasturtean sukaldea jartzeko lanak abiatzea?

Donostian, 2025eko uztailaren 4a

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Iñigo García jaunak eta Izar Hernando andreak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**5.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) buruzkoa.**

Arantza González andreak interpelazio hau azaldu du:

“Arantza González Garcíak, Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Gizarte Zerbitzuetako, Ekintza Komunitarioko eta Auzoetako zinegotzi ordezkari Idoeta andereari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete batzuk daramatzagu behin eta berriz esaten gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko eskubidea aitortuta duten pertsona askok oinarrizko gizarte-zerbitzuekin hitzordua izateko zain jarraitzen dutela, laguntza horiek jaso ahal izateko.

Zinegotzi ordezkariak adierazi du GLL guztiak ordaintzen ari direla, baina hori ez da horrela. Uztailean gaude, Eusko Jaurlaritzak dagokion agindua argitaratu du, baina pertsona batzuek ez dituzte laguntza horiek jasotzen, nahiz eta horien beharra dutela egiaztatuta eduki.

Gogorarazi nahi dugu larrialdiko laguntzak direla, eta premia-egoerak arintzera bideratuta daudela, pertsonak zaurgarritasun-egoeran egon ez daitezen. Beraz, 2025eko uztailean gaudela kontuan hartuta,

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

• ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no instala una cocina en el colegio de Aiete aprovechando el espacio vacío existente junto al comedor?

• ¿Sería posible iniciar las obras para poder contar con cocina el próximo curso?

San Sebastián, 4 de julio de 2025

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen el Sr. García Villanueva y la Sra. Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación con las Ayudas de Emergencia Social.**

La Sra. González García expone la siguiente interpelación:

“Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la concejala delegada de Servicios Sociales, Acción Comunitaria y Barrios, Sra. Idoeta, en la Comisión de Servicios a las Personas en relación con las Ayudas de Emergencia Social (AES).

JUSTIFICACIÓN

Llevamos varios meses insistiendo en que muchas personas que tienen reconocido el derecho a percibir Ayudas de Emergencia Social siguen esperando una cita con los servicios sociales de base para poder percibir esas ayudas.

La concejala delegada ha manifestado que se estaban abonando todas la AES, sin embargo eso no es así. Estamos en el mes de julio, el Gobierno Vasco ha publicado la orden correspondiente pero sigue habiendo personas que no las reciben a pesar de tener acreditada su necesidad.

Recordamos que son ayudas de emergencia que van destinadas a paliar situaciones urgentes de necesidad con el objetivo de que las personas no sufran una situación de vulnerabilidad. Por lo

ez dugu ulertzen nola egon daitekeen inor laguntza horiek jasotzeko zain.
Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez zaizkie GLLak ordaintzen eskubide hori aitortuta duten pertsona guztiei?

2. Noiz ordainduko zaie GLLa eskubide hori aitortuta duten pertsona guztiei?

3. Zein da gizarte-larrialdietarako laguntzen eskaeren bilakaera 2025ean?

4. Udalak jaso al du GLLak ordaintzeagatiko partida Eusko Jaurlaritzaren aldetik?

Donostia, 2025eko uztailaren 4a

Arantza González García
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

María Jesus Idoeta eta Arantza González andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(11:28an Vanesa Vélez andrea bertaratu da bilerara)*

* * * *

Batzordeko kideen adostasunez, batzordeburuak 2. gaia jorratzea erabaki du aztergaien hurrenkera aldatuz.

* * * *

**Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Buenavistako Bizilagunen Auzo Elkarteari lokal bat emateko beharrari buruzkoa.**

Vanesa Velez andreak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Velez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Buenavistako Auzo Elkarteari lokal bat utzi beharraren gaineko INTERPELAZIO hau egin behar dio Eneko Goia Laso alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Buenavistako Auzo Elkarteak –hiriko beste askok bezalaxe– ez du lokalik, bere bilerak egin eta bizilagunentzako jarduerak antolatzeko.
Gainera, Buenavistako bizilagunek ez dute ezeren ekipamendurik ere, haurrentzako jolas-eremu txiki

tanto, no es entiende que a julio de 2025 haya personas esperando a percibirlas.
Por todo ello, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razón no se están abonando las AES a todas las personas que tienen reconocido ese derecho?

2. ¿Cuándo se va a realizar el pago de la AES a todas las personas que tienen reconocido ese derecho?

3. ¿Cuál es la evolución durante 2025 de las solicitudes de Ayudas de Emergencia Social?

4. ¿Ha recibido el Ayuntamiento la partida correspondiente al pago de las AES por parte del Gobierno Vasco?

Donostia, a 4 de julio de 2025

Arantza González García
Concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia".

Intervienen las Sras. Idoeta Madariaga y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 11:28 h se incorpora la Sra. Vélez de Pablos a la sesión)*

* * * *

Con la conformidad de los y las miembros de la comisión, el Presidente decide tratar el punto n.º 2, alterando el orden del día.

* * * *

**Interpelación, presentada por el grupo PP, sobre la necesidad de dotar de un local a la Asociación de Vecinos de Buenavista.**

La Sra. Vélez de Pablos expone la siguiente interpelación:

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre la necesidad de dotar de un local a la AAVV de Buenavista.

JUSTIFICACIÓN

La AAVV de Buenavista, como tantas otras en la ciudad, no cuentan con un local para reunirse y poder organizar actividades para sus vecinos.
Además, los vecinos de Buenavista no cuentan con ningún equipamiento, más allá de una

bat besterik.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu taldeak zergatik ez ditu Buenavistako bizilagunen beharrak kontuan hartu eta lokal bat uzteko egin behar diren pausuak egiten?

2. Udal gobernuak badu horren inguruan ezer egiteko asmorik?

3. Erantzuna baiezkoa bada, zer urrats edo izapide egiteko asmoa du?

4. Ezezkoa bada, zergatik ez du?

Donostian, 2025eko uztailaren 3an

Vanesa Velez de Pablos
Udaleko PP taldeko zinegotzia".

Vanesa Vélez eta Maria Jesus Idoeta andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

* * * *

Jarraian, deialdian gaiak aztertzeko aurreikusi zen hurrenkerari ekin diote berriro.

* * * *

**6.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Amara Berrin CEAR-en egoitzaren inguruan dauden pertsonei buruzkoa.**

Izar Hernando andreak interpelazioa hau azaldu du:

"Izar Hernando Iberok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, interpelazioa egiten dio Maria Jesús Idoeta Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuari, hari buruzko azalpenak Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hilabete parean Amara Berri auzoan egoera berezia sortu da. Izan ere, hirian kale egoeran dauden pertsona kopurua 400etik gorakoa dela badakigu eta herritar horiek hiriaren luzezabalean sakabanaturik daude, normalean, ezkutuan. Amara Berrin, baina, azken aldian fenomeno honek forma oso lokalizatua hartu du: Donostiako CEAR zentroa maliar pertsona ugari jasotzen ari da, errefuxiatu

pequeña zona de juegos infantiles.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no tiene en cuenta las necesidades?

2. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de hacer algo al respecto?

3. En caso afirmativo, ¿qué pasos o trámites piensa dar al respecto?

4. En caso negativo, ¿por qué?

En San Sebastián, a 3 de julio de 2025

Vanesa Vélez de Pablos
concejala del grupo municipal PP".

Intervienen las Sras. Vélez de Pablos y Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

* * * *

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**6.- Interpelación, presentada por el grupo EH Bildu, sobre las personas que se encuentran en el entorno de la sede CEAR en Amara Berri.**

La Sra. Hernando Ibero expone la siguiente interpelación:

"Izar Hernando Ibero, concejala del grupo municipal EH BILDU, presenta, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente interpelación a María Jesús Idoeta, concejala delegada de Acción Social, para su tratamiento en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

En el último mes se ha producido una situación particular en el barrio de Amara Berri. Sabemos que el número de personas que se encuentran en situación de calle en la ciudad es superior a 400 personas, y estos personas se encuentran generalmente diseminadas y escondidas por toda la ciudad. En Amara Berri, sin embargo, últimamente este fenómeno ha tomado una

izendapena lortzeko asmoz. Tramiteak, baina, oso motelak izaten ari dira, eta hamarnaka maliarrek CEAR-ek bulegoa duen plazan pasatzen dute denbora, zain, egun eta gau.

forma muy localizada: El centro CEAR de San Sebastián está recibiendo un flujo importante de personas procedentes de Mali, con el fin de que se les reconozca el estatus de personas refugiadas. Estos trámites están siendo muy lentos y decenas de malienses esperan, día y noche, en la plaza donde CEAR tiene su oficina.

Horrek, jakina, kezka sortu du bizilagunengan, eta horietako batzuk antolatzen ari dira plaza batean kontzentratuta dauden pertsona hauen egunerokoa duinagoa izan dadin. Aipatu auzotarrek egin dezaketena, baina, oso motz gelditzen da maliarren egoerari buelta emateko.

Esto ha generado preocupación entre vecinas y vecinos, y algunos de ellos se están organizando para que el día a día de estas personas que se concentran en esta plaza sea más digno. No obstante, lo que pueden hacer estos vecinos se queda muy corto para revertir la situación de estos malienses.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

• Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Amara Berrin kontzentratu diren maliarrak artatzeko baliabiderik erraztu?

• Cuál es el motivo por el que el Gobierno Municipal no ha facilitado recursos para atender a los malienses concentrados en Amara Berri?

• Zein interlokuzio du Udal Gobernuak CEAR-ekin, izapideak azkarragoak izan daitezen?

• ¿Qué interlocución mantiene el Gobierno Municipal con CEAR para agilizar los trámites?

• Jarri al da Udal Gobernua Amara Berriko bizilagunekin eta Amara Berrin dauden maliarrekin harremanetan?

• ¿Ha contactado Gobierno Municipal con las y los vecinos de Amara Berri y con los malienses concentrados en ese barrio?

Donostian, 2025eko uztailaren 4an

San Sebastián, a 4 de julio de 2025

Izar Hernando Ibero,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Izar Hernando Ibero
concejala del grupo municipal EH Bildu".

María Jesus Idoeta eta Izar Hernando andreek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen las Sras. Idoeta Madariaga y Hernando Ibero, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>7.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Donostia eta gurutzontzi turistikoei buruzkoa</u>**

**<u>7.- Interpelación, presentada por el grupo EH Bildu, sobre San Sebastián y los cruceros turísticos</u>**

7. gaia 8. gaiaren ondoren aztertu da.

El asunto n.º 7 se trata a continuación del asunto n.º 8.

**<u>8.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, turista-taldeak erregulatzen dituen neurriaren lehen urtearen balantzeari buruzkoa</u>**

**<u>8.- Interpelación, presentada por el grupo EH Bildu, relativa al balance del primer año de la medida reguladora de las agrupaciones de turistas</u>**

8. gaia 11.5 gaiarekin batera aztertu da, 7. gaiaren ondoren.

El asunto n.º 8 se trata conjuntamente con el asunto n.º 11.5., tras el asunto n.º 7.

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak deialdian aurreikusitako gaien ordena aldatzea erabaki du. Hori dela eta, jarraian, 8. gaia aztertu da. Ondoren, 7. gaia eta Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenetako bosgarrena batera aztertzea erabaki da (11.5 gaia), hurrenkera horretan.

* * * *

Con la conformidad de todos los y las presentes, el Presidente decide alterar el orden de tratamiento de los asuntos previstos en la convocatoria. Así, a continuación, se pasa a tratar el asunto n.º 8. Posteriormente, se decide tratar de forma conjunta los asuntos n.º 7 y la

quinta de las iniciativas remitidas por la Junta de Portavoces (asunto n.º 11.5).

* * * *

**Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, turista-taldeak erregulatzen dituen neurriaren lehen urtearen balantzeari buruzkoa.**

Markel Ormazabal jaunak irakurritzat eman du interpelazio hau:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Turismoko zinegotzi ordezkari Jon Insausti Maizterrenari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Duela urtebete jarri zuen abian Donostiako Udalak turista-talde antolatuen erregulazioa, besteak beste, bisitari-taldeak gehienez 25 lagunera mugatzen zituena. Hamabi hilabete geroago, aurtengo maiatzaren 22an, neurriak emandakoa baloratzeko agerraldia egin zuten Jon Insausti Turismo zinegotziak, Donostia Turismoko zuzendariak eta Udaltzaingoaren Udal Ordenantzak Betetzeko Unitateko (UCOM) ordezkariak.

Udalak neurriaren lehen urtearen balantze "oso positiboa" egin du: "gida eta agentzia gehienek araudia bete dute, eta turismo-esperientzia harmoniatsuagoa eta arduratsuagoa lortzen lagundu dute". Ordenantza betetzen ari dela nabarmendu zuten, nahiz eta Turismoko zinegotziak berak onartu bezala, salbuespenak egon badiren. Salbuespen horiek "araua ez ezagutzeari" egotzi ahal zaizkiola gaineratu zuen; izan ere, Udaltzaingoak ireki omen dituen hamar espedienteen artean (lau 2024an eta sei 2025ean) "ez dago tokiko enpresa eta gidariei eragiten dienik, estatuko agentziei edo Europa mailan jarduten dutenei baizik".

"Salbuespen" horien arrazoia edozein izanda ere, kontua da araua indarrean jarri zenetik udal talde honek gutxienez bi kexa jaso dituela hilabeteko, adieraziz ez zela araua betetzen ari. Hau da, gutxienez 25 kexa baino gehiago, eta, jakina, kexa behar den bezala eta lekuan aurkeztera gonbidatu genituen. Baina, dirudienez, ez da hori gertatu, ez behintzat kasu guztietan.

Hala ere, oraindik ere kexak iristen zaizkigu, eta, egia esan, duela hilabete batzuetatik hona ez da bereziki

* * * *

**Interpelación, presentada por el grupo EH BILDU, relativa al balance del primer año de la medida reguladora de las agrupaciones de turistas.**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga da por leída la siguiente interpelación:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al concejal de Turismo, Jon Insausti Maizterrena, para su respuesta en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Hace un año, el Ayuntamiento de San Sebastián puso en marcha la regulación de grupos turísticos organizados, que, entre otras medidas, limitaba los grupos de visitantes a un máximo de 25 personas. Doce meses después, el 22 de mayo del presente año, el concejal de Turismo Jon Insausti, la directora de Turismo de San Sebastián y el representante de la Unidad de Cumplimiento de Ordenanzas Municipales de la Guardia Municipal (UCOM) comparecieron para valorar el resultado de la citada medida.

El Ayuntamiento ha realizado un balance "muy positivo" de este primer año y ha señalado que "la gran mayoría de guías y agencias han cumplido con la normativa, contribuyendo a una experiencia turística más armoniosa y responsable". Insisten en que se está cumpliendo la ordenanza, aunque, tal y como reconoce el propio concejal de Turismo, hay excepciones. Estas, según añade, son atribuibles al "desconocimiento de la norma", ya que ninguno de los diez expedientes que, al parecer, ha abierto la Guardia Municipal (cuatro en 2024 y seis en 2025) "afecta a empresas y guías locales, sino a agencias estatales o agencias que operan a nivel europeo".

Sea cual sea el motivo de estas "excepciones", lo cierto es que, desde la entrada en vigor de la norma, este grupo municipal ha recibido al menos dos quejas al mes por incumplimiento de lo dispuesto en ella. Es decir, más de 25 quejas. Por supuesto, a las personas que nos trasladaron dichas quejas se les invitó a que las presentaran en la forma y lugar adecuados, pero, al parecer, esto no ha ocurrido, al menos no en todos los casos.

Sin embargo, a día de hoy nos siguen llegando quejas y lo cierto es que, desde hace unos

zaila 25 pertsonatik gorako talde turistikoekin topo egitea. Atxikitutako argazkiak bi adibide besterik ez dira, biak ekainekoak.

Ez dugu ukatzen bi adibide horiek salbuespenen parte izan daitezkeela, edo txikikeria bat izan daitekeela, batez ere kontuan hartzen badugu hirian jarduten duten enpresa eta gida erregistratuen bolumena. 2024an 259 gida eta agentzia erregistratu ziren, eta 2025eko lehen lau hilabeteetan dagoeneko 201 eskaera erregistratu dira. Udal arduradunentzat, datu “horrek neurriaren onarpen-maila handia berresten du”; donostiar askorentzat, ordea, turismo-jardueraren hazkundeak geldiezina izaten jarraitzen duela esan nahi du.

Donostiako Udalak 2022ko azaroaren 25ean iragarri zuen "Gida onaren dekalogoa" prestatzen ari zela. Zazpi hilabete geroago, ordea, ez zegoen dekalogoaren berririk. Horretan, Parte Zaharrean Bizi elkarteak 2023ko ekainaren 25ean egindako salaketak zalaparta sortu zuen: “Turista talde bat Trinitate plazan sartu zen, eta gidariaren azalpenak entzun ahal izateko zabaldu ziren. Neska-mutil kuadrilla bat jokatzen ari zen partida geldiarazi zuten. Zer leku geratzen zaigu auzokooi? Non jolastu? Non ahal dugu elkarrekin erlazionatu?”. Aldi berean, auzo elkarteak aipatu dekalogoaren inguruan galdetu zion Udalari, baina ez zuen erantzunik jaso. Parte Zaharreko bizilagunen kexa eta eskaria Donostiako osoko bilkurara iritsi zen, eta orduan hasi zen Udal Gobernua turista-talde antolatuak arautuko zituen araudia prestatzen, hori bai, “Gida onaren dekalogoa” oinarri hartuta.

Araudi berria 2024ko maiatzean sartu zen indarrean. Urtebete igaro da ezarri zenetik, eta 2025eko ekainaren 13an beste gertaera baten berri izan genuen, bi urte atzera eraman gintuena. Egun hartan, Zaharrean merkatarien elkarteak antolatuta, hainbat jarduera egiten ari ziren Trinitate plazan. Halako batean, gidari bat buru zuen turista-taldea plazara sartu zen eta frontoian pilotan jokatzen ari ziren haurrak kanporatu zituen. Lekukoen arabera, taldea berrogei edo berrogeita hamar lagunekoa zen, eta behin frontoiaren jabe egin zirenean, zesta-puntan jokatzen hasi ziren.

Neurriaren lehen urtearen balantzea egitean adierazi zenez, “Donostia Turismoak politika publiko horren eragina ebaluatzen jarraituko du, hobetzeko

meses, no es especialmente difícil encontrarnos con grupos turísticos de más de 25 personas. Las fotografías adjuntas son solo dos ejemplos, ambas del mes de junio.

No negamos que estos dos ejemplos puedan formar parte de las citadas excepciones, o que puedan ser una minucia, sobre todo si tenemos en cuenta el volumen de empresas y guías registrados que operan en la ciudad. En 2024 se registraron 259 guías y agencias y en los cuatro primeros meses de 2025 ya se han registrado 201 solicitudes. Para los y las responsables municipales, el dato "corrobora el alto grado de aceptación de la medida"; sin embargo, para buena parte de la ciudadanía donostiarra esto significa que el crecimiento de la actividad turística sigue siendo imparable.

El Ayuntamiento de San Sebastián anunció el 25 de noviembre de 2022 que estaba preparando el "Decálogo del buen guía". Sin embargo, siete meses después, no teníamos ninguna noticia al respecto. En este contexto, la denuncia formulada por la asociación Parte Zaharrean Bizi el 25 de junio de 2023 generó un revuelo: "Un grupo de turistas entró en la plaza y, para poder escuchar las explicaciones del guía, se expandieron. Interrumpieron el partido que estaba jugando una cuadrilla de chicos y chicas. ¿Qué lugares nos quedan a los vecinos? ¿Dónde jugar? ¿Dónde podemos relacionarnos?". Al mismo tiempo, la asociación vecinal preguntó al Ayuntamiento sobre el citado decálogo, pero no obtuvo respuesta alguna. La queja y petición de los vecinos y vecinas de la Parte Vieja llegó al pleno de San Sebastián, y fue entonces cuando el Gobierno municipal comenzó a elaborar una normativa que regularía los grupos turísticos organizados, basándose, eso sí, en el "Decálogo del buena guía".

La nueva normativa entró en vigor en mayo de 2024. Ha pasado un año desde su implantación y el 13 de junio de 2025 tuvimos conocimiento de un nuevo suceso que hizo que retrocediéramos dos años atrás. Ese día, organizadas por la Asociación de Comerciantes Zaharrean, se estaban llevando a cabo diversas actividades en la plaza de la Trinidad. En un momento dado, un grupo de turistas, encabezado por la persona que hacía de guía, entró en la plaza y expulsó a los niños y niñas que jugaban a pelota en el frontón. Según las personas que presenciaron este suceso, el grupo estaba conformado por unas cuarenta o cincuenta personas, y estas, tras apoderarse del frontón, empezaron a jugar a cesta punta.

En el balance del primer año de la medida se indicó que "Donostia Turismoa continuará evaluando el impacto de esta política pública,

proposamenak bilduz eta sektoreko eragileekin etengabeko elkarrizketa mantenduz”. Hau da, beste behin ere ez dira bizilagunak aipatzen, eta, hala ere, esango da “kalitatezko turismoa donostiarren ongizatea zaintzen bada baino ez dela posible”.Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

• Zer dela eta ez ditu Udal Gobernuak bizilagunak aintzat hartu turista-taldeei buruzko arauaren balantzea egiterakoan? Udaltzaingoaren hamar esku-hartzeetatik, zenbat dira herritarren salaketengatik eta zenbat arau-hausteak zuzenean detektatzeagatik? Esku-hartze horietako zenbatek amaitu dute isuna izaten? Neurriaren lehen urtearen balantze “oso positiboa” egin arren, Udal Gobernuak pentsatu al du araudia hobetzea?

Donostian, 2025eko uztailaren 4an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Jon Insausti eta Markel Ormazabal jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(11:47an Victor Lasa jauna bertaratu da bilerara)*

* * * *

**11:53an, atsedenaldia egiten da eta berriro ere ekiten zaio saioari, 12:09etan.**

* * * *

**<u>Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Donostia eta gurutzaontzi turistikoei buruzkoa.</u>**

Markel Ormazabal jaunak interpelazio hau azaldu du:

“Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Turismoko zinegotzi ordezkari Jon Insausti Maizterrenari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Ez da gurutzaontzi turistiko bat Donostian

recogiendo propuestas de mejora y manteniendo un diálogo constante con los y las agentes del sector". Es decir, una vez más no se hace referencia a los vecinos y vecinas y, sin embargo, se dice que "un turismo de calidad solo es posible si también cuida del bienestar de la ciudadanía donostiarra". Por todo ello, el concejal abajo firmante realiza la siguiente INTERPELACIÓN:

• ¿Por qué el Gobierno municipal no ha tenido en cuenta a los vecinos y vecinas a la hora de hacer el balance de la norma sobre grupos turísticos? De las diez intervenciones llevadas a cabo por la Guardia Municipal, ¿cuántas son por denuncias ciudadanas y cuántas por detección directa de infracciones? ¿Cuántas de estas intervenciones han finalizado con la imposición de una multa? A pesar del balance "muy positivo" del primer año de medida, ¿ha pensado el Gobierno municipal mejorar la normativa?

San Sebastián, 4 de julio de 2025

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
Concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen los Sres. Insausti Maisterrena y Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 11:47 h se incorpora el Sr. Lasa Briz a la sesión)*

* * * *

**Siendo las 11:53 h., se realiza un receso y se reanuda la sesión, cuando son las 12:09 h.**

* * * *

**<u>Interpelación, presentada por el grupo EH BILDU, sobre San Sebastián y los cruceros turísticos.</u>**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga expone la siguiente interpelación:

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al concejal de Turismo Jon Insausti Maizterrena, para su respuesta en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

No es la primera vez que un crucero turístico

ainguratzen duten lehenengo aldia, baina bai aurtengo lehena. Ekainaren 17an Urumeako bokalean ikusi ahal izan genuen *Scenic Eclipse* ontziaz ari naiz. Esan gabe doa horrek ikusmin handia sortu zuela donostiarren artean, bai itsasontzi mota horiek duten tamaina ikusgarriagatik, bai turismo masiboaren eta turistifikazioaren erakusgarri nabarmenen artean daudelako ere.

fondea en San Sebastián, pero sí la primera de este año. Me refiero al *Scenic Eclipse* que pudimos ver el pasado 17 de junio en la desembocadura del río Urumea. Evidentemente, esto generó gran expectación entre los donostiarras, tanto por el espectacular tamaño de este tipo de embarcaciones, como por su significado, como uno de los exponentes más destacados del turismo masivo y de la turistificación.

Visit Bizi 2023-2027 Donostiako Turismo Jasangarriaren Planak ere aipamena egiten dio turismo mota honi. Zehazki, hiriari interesatzen ez zaion turismoaren atalean, honela jasotzen da:

El Plan de Turismo Sostenible de San Sebastián 2023-2027 Visit Bizi hace también referencia a este tipo de turismo. En concreto, en el apartado *Qué turismo no nos interesa*, se recoge lo siguiente:

*Turismo masiboa: Gurutzaontzi handiak; festa-, mozkorkeria-, eguzki eta hondartza-turismoa.*

*«Turismo masivo: De grandes cruceros,turismo de fiesta, borrachera, sol y playa».*

Europa hegoaldeko hainbat hiri-portuetan, batez ere Mediterraneoan (Bartzelona, Venezia...), gurutzaontziak mugatzen hasi direnetik, areagotu egin da hauen presentzia euskal kostaldean. *Cruise Compete* atariak, esaterako, zuzenean edo zeharka Donostiari erreferentzia egiten dioten hamar iragarki baino gehiago aurkitu daitezke.

Desde el inicio de la limitación de cruceros en varios puertos urbanos del sur de Europa, especialmente en el Mediterráneo (Barcelona, Venecia...), se ha incrementado su presencia en la costa vasca. Por ejemplo, el portal *Cruise Compete, se* pueden encontrar más de diez anuncios que hacen referencia directa o indirecta a San Sebastián.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

• Zer dela eta ez du Udal Gobernuak gure inguruan areagotzeko joera agertzen duen turismo eredu honi buruzko jarrerarik adierazi? Udal Gobernuak ba al du horretarako asmorik?

• ¿Cuál es el motivo por el que el Gobierno Municipal no se ha posicionado sobre este modelo turístico que tiende a intensificarse en nuestro entorno? ¿Tiene intención de hacerlo?

Donostian, 2025eko uztailaren 4an

San Sebastián, a 4 de julio de 2025

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
concejal del grupo muncipal EH Bildu".

**Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, gurutzontzi turistikoak Pasaiako portura iristeari eta horiek hirian duten eraginari buruzkoa.**

**Interpelación, presentada por el grupo Elkarrekin Donostia, sobre la llegada de cruceros turísticos al puerto de Pasaia y su influencia en la ciudad.**

Victor Lasa jaunak interpelazio hau azaldu du:

El Sr. Lasa Briz expone siguiente interpelación:

"Elkarrekin Donostia udal-talde mistoaren bozeramaile Victor Lasak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Kulturako zinegotzi Jon Insaustiri, itsas-bidaiak Pasaiako portura iristeari eta horrek Donostiako turismo- eta ingurumen-plangintzan duen eraginari buruz, Gune Publikoen Batzordean azter dadin.

"Dr. Víctor Lasa, Portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Concejal de Turismo Jon Insausti en la Comisión de Espacio Público, relativa a la llegada de cruceros turísticos al puerto de Pasaia y su influencia en la ciudad de Donostia/San Sebastián.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Azken urteotan, gurutzaontzi txiki eta ertainak

En los últimos años se ha reactivado la llegada

Pasaiako portura iristen hasi dira berriro, Gipuzkoako kostaldean turismoa dibertsifikatzeko estrategia baten baitan. Portuak jarduketa-muga nabarmenak baditu ere (mugak itsasontzien luzeran, zabaleran eta maniobragarritasunean), badaude baimendutako eragiketak, eta horrelako itsasontzien maiztasuna areagotzeko erakunde-interesa behin baino gehiagotan adierazi dute bai portuko agintariek, bai Eusko Jaurlaritzako ordezkariek.

Itsas-bidaia horiek bisita antolatuak egiten dituzte Donostiara, edo joan-etorriak antolatzen dituzte bidaiariak Donostiara joateko. Beraz, gure hiriko eredu turistikoaren atal aktibo bat dira, eta horrek eragina du gure hirian, batez ere goi-denboraldian. Hala ere, orain arte, ez da erakundeen edo herritarren arteko eztabaidarik publikoki jasota geratu, hain zuzen ere trafiko horrek ingurumenean, mugikortasunean, paisaian edo gizartean izan ditzakeen inpaktuen inguruan, ez eta hiriaren xede den turismo-eredu jasangarriarekin bat etortzearen inguruan ere.

Era berean, ez dirudi Donostiako Udalak Pasaiako Portu Agintaritzarekin eta Estatuko Portuekin elkarrizketa formalik bultzatu duenik, fenomeno hori hiriaren eta eskualdearen ikuspegi integral batetik jorratzeko, hain zuzen ere Europako eta Estatuko beste herri batzuetan planteatu diren mugak, baldintzak edo murrizketak ezartzeko aukera aztertzeko.

Horiek horrela, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez du orain arte erakundeen arteko elkarrizketarik abian jarri Pasaiako Portuarekin edo Estatuko Portuekin, gurutzaontzien trafikoak Donostian duen eragina baloratzeko?

2. Udal-gobernuak ba al du Pasaiako portura iristen diren gurutzaontzi turistikoen egungo edo aurreikusitako maiztasunaren berri? Ba al du itsas-bidaietako bidaiarien profilaren berri? Ba al daki horietatik zenbatetan antolatzen diren joan-etorriak Donostiara?

3. Udalak ba al du azterlan, balorazio edo diagnostikorik itsas trafiko mota horrek Donostian izan dezakeen ingurumen, paisaia edo turismo inpaktuaren inguruan? Erantzuna baiezkoa bada, horiek bidaliko al zenizkigukete?

4. Udal-gobernuak zergatik ez du modu argian adierazi Pasaiako badiara gurutzaontzi turistikoak iristeko joera finkatzea egokia edo komenigarria den,

de cruceros de pequeño y mediano tamaño al puerto de Pasaia, como parte de una estrategia de diversificación turística en el litoral guipuzcoano. Aunque el puerto presenta limitaciones operativas relevantes (restricciones de eslora, manga y maniobrabilidad), existen operativas autorizadas, y el interés institucional por aumentar su frecuencia ha sido manifestado en varias ocasiones por responsables del propio puerto y del Gobierno Vasco.

Estos cruceros suelen incorporar visitas organizadas o desplazamientos de pasajeros hacia Donostia, siendo parte activa del modelo turístico que afecta a la ciudad, especialmente en temporada alta. Sin embargo, hasta el momento, no consta públicamente ningún debate institucional o ciudadano sobre los impactos ambientales, de movilidad, paisajísticos o sociales que este tráfico pueda generar, ni sobre su encaje en el modelo turístico sostenible al que aspira la ciudad.

Tampoco parece haberse impulsado desde el Ayuntamiento de Donostia ninguna interlocución formal con la Autoridad Portuaria de Pasaia ni con Puertos del Estado para abordar este fenómeno desde un enfoque integral de ciudad y comarca, que contemple límites, condiciones o incluso restricciones como ya se han planteado en otras localidades europeas y del Estado.

Por lo tanto, presentamos la siguiente interpelación:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el Gobierno municipal no ha abierto hasta la fecha una interlocución institucional con el Puerto de Pasaia o Puertos del Estado para valorar el impacto del tráfico de cruceros en la ciudad de Donostia/San Sebastián?

2. ¿Tiene conocimiento el Gobierno municipal de la frecuencia actual o prevista de cruceros turísticos que recalan en el puerto de Pasaia, así como de su perfil de pasajeros y rutas hacia Donostia?

3. ¿Dispone el Ayuntamiento de algún estudio, valoración o diagnóstico sobre el impacto ambiental, paisajístico o turístico que puede derivarse de este tipo de tráfico marítimo en el entorno donostiarra? En caso afirmativo, ¿nos lo/s puede/n facilitar?

4. ¿Por qué no tiene el Gobierno municipal una posición clara sobre la idoneidad o conveniencia de consolidar la llegada de cruceros turísticos a la bahía de Pasaia como parte del modelo

hain zuzen ere metropoliko turismo-ereduaren zati gisa?

5. Aurreikusi al da eredu horren inguruan informazioa eman eta herritarrekin hausnarketa egiteko prozesu bat abian jartzea? Era berean, eredu horrek eragin negatiboa duela egiaztatuta dagoenez, ba al dago asmorik jarduera hori arautu, mugatu edo debekatzeko?

Donostian, 2025eko apirilaren 1a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea".

Jon Insausti, Markel Ormazabal eta Victor Lasa jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

* * * *

Jarraian, deialdian gaiak aztertzeko aurreikusi zen hurrenkerari ekin diote berriro.

* * * *

**9.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Donostiako aterpe klimatikoei buruzkoa.**

Markel Ormazabal jaunak hurrengo interpelazioa irakurritzat eman du:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Ingurumeneko zinegotzi ordezkari Iñigo García Vilanuevari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Klima aldaketaren ondorioak pairatzen ari gara. 2024an, hiru bero-bolada erregistratu ziren, eta 22 eguneko iraupena izan zuten; beraz, udako lau egunetatik bat bero-boladaren erregimenaren menpe egon zen, Estatuko Meteorologia Agentziaren (Aemet) 2024ko Balantze Klimatikoaren arabera. Aurten, berriz, udako lehen bero-bolada ekainaren 25ean iritsi zen, eta iragarpen guztien arabera, datozen hilabeteetan beste hainbat biziko ditugu. Bada, bero-boladek eragindako arrisku gorriko mailak denboran luzatzea muturreko arrisku-maila da herritar guztientzat, bereziki zaurgarritasun handieneko egoeran dauden pertsonentzat.

Herritarrak beroaz babesteko guneak dira aterpe klimatikoak, eta Donostian ere aterpe klimatikoen

turístico metropolitano?

5. ¿Se contempla la posibilidad de abrir un proceso de información o debate ciudadano sobre este modelo, así como de solicitar medidas de regulación, limitación o incluso moratoria al quedar constatado que tiene un impacto negativo?

Donostia, a 01 de abril de 2025

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

Intervienen los Sres. Insausti Maisterrena, Ormazabal Gaztañaga y Lasa Briz, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

* * * *

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * * *

**9.- Interpelación, presentada por el grupo EH Bildu, sobre los refugios climáticos en la ciudad.**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga da por leída la siguiente interpelación:

"Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al concejal delegado de Medio Ambiente, Iñigo García Villanueva, para que dé su respuesta en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

Estamos sufriendo las consecuencias del cambio climático. En 2024 se registraron tres olas de calor, con una duración de 22 días, por lo que uno de cada cuatro días de verano estuvo sometido al régimen de ola de calor, según el Balance Climático de 2024 de la Agencia Estatal de Meteorología (Aemet). Este año la primera ola de calor estival llegó el 25 de junio, y todos los pronósticos apuntan a que en los próximos meses viviremos otras muchas más. Pues bien, la prolongación en el tiempo de niveles rojos por olas de calor supone un riesgo extremo para toda la población, especialmente para las personas en situación de mayor vulnerabilidad.

Los refugios climáticos son zonas de protección del calor para la ciudadanía y en San Sebastián

sare bat dugu. Hala ere, iazko udaran hainbat kexa jaso ziren herritarren aldetik, eta baita Baso Biziak plataformaren aldetik ere, aterpe hauetako zenbaiten erabilgarritasunik eza dela eta. Aldi berean, plataforma honek salatu zuen Donostiak, EAEko beste hiriburuek bezala, badituztela “mapak non zehazten dituzten gune horiek”, baina berariazko “planik eta protokolorik gabe paper hutsa” besterik ez direla.

Urte bete beranduago, eta bero-boladen iragarpenak areagotzen ari diren honetan, Donostiako Udaleko aterpe klimatikoen informazioak iazko berdina izaten jarraitzen du, eta gainera ez da egoeraren larriak eskatzen duen bestelako lanketa bereziturik egin. Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

• Zer dela eta ez du Udal Gobernuak 2025eko udari begira berariazko lanketarik egin gai honen inguruan, jakina denean horrelako bero-boladak areagotu egingo direla?

Donostian, 2025eko uztailaren 4an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Iñigo García eta Markel Ormazabal jaunek hitz egin du. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**<u>10.- Iradokizuna, EH Bildu taldeak aurkeztua, Donostiaren eta bere auzoen karga turistikorako ahalmenari buruzkoa.</u>**

Markel Ormazabal jaunak hurrengo iradokizuna azaldu du:

“Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 137. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, iradokizun hau egiten dio Turismoko zinegotzi ordezkari Jon Insausti Maizterrenari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak apirilean iragarri zuen hiriaren karga turistikorako gaitasuna ebaluatzeko ikerketa abian jarri duela. “IN2destination” enpresa arduratuko da azterlanaz eta ondorioak 2026ko udazkenerako prest egongo direla jakinarazi da.

EH Bildu aspalditik ari da turismoaren karga-ahalmenari buruz hausnartzen, eta azken urteotan

contamos con toda una red. Sin embargo, durante el verano pasado se recibieron quejas de la ciudadanía, así como de la plataforma Baso Biziak, por la falta de disponibilidad de algunos de estos refugios. Al mismo tiempo, esta plataforma denunció que San Sebastián, al igual que otras capitales vascas, tiene "mapas en los que se reflejan estos espacios", «sin planes ni protocolos, quedan en papel mojado».

Un año más tarde, y en un contexto de auge de los pronósticos de olas de calor, la información de los refugios climáticos del Ayuntamiento de San Sebastián sigue siendo la misma que el año pasado, sin que se hayan llevado a cabo más tareas específicas que las derivadas de la gravedad de la situación. Es por ello por lo que el concejal que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

• ¿Cuál es la razón por la que el Gobierno municipal no ha abordado específicamente esta cuestión de cara al verano de 2025, cuando se sabe que este tipo de olas de calor se intensificarán?

San Sebastián, 4 de julio de 2025

Jon Markel Ormazabal
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Intervienen los Sres. García Villanueva y Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>10.- Sugerencia, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la capacidad de carga turística de San Sebastián y sus barrios</u>**

El Sr. Ormazabal Gaztañaga expone la siguiente sugerencia:

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente sugerencia al concejal de Turismo Jon Insausti Maizterrena, para su respuesta en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento de San Sebastián anunció en abril la puesta en marcha de un estudio para evaluar la capacidad de carga turística de la ciudad. La empresa IN2destination se encargará de este estudio y se ha anunciado que los resultados estarán listos para otoño de 2026.
EH Bildu lleva tiempo reflexionando sobre la capacidad de carga turística y durante los últimos

hainbat proposamen jarri ditu mahai gainean. Alde horretatik, pozik gaude udal gobernuak hartutako erabakiarekin, nahiz eta berandu iritsi den. Turismoak hazten jarraitzen du, baita sortzen dituen arazoak eta eragozpenak ere. Hala bada, testuinguruak eta politika publikoen lanketan eragiteko aukerak bultzatuta, eta betiere donostiarren ongizatea hobetzeko helburuarekin, honako ekarpen hauek egiten ditugu.

años ha puesto una serie de propuestas sobre la mesa. En este sentido, estamos satisfechos con la decisión tomada por el gobierno municipal, aunque sea una decisión que llega tarde. El turismo sigue creciendo y por consiguiente, también los problemas e inconvenientes que genera. Así, ante los contextos actuales y viendo la posibilidad de incidir en la elaboración de políticas públicas, realizamos las siguientes aportaciones, con el objetivo de mejorar el bienestar de la población donostiarra.

Doala aurretik ez dela gure asmoa hasi berri den lanari zuzenketak egitea; aitzitik, bitartean egin beharreko gainerako lanetarako akuilu izan nahi duten gogoetak dira.

Vaya por delante que nuestra intención no es corregir el análisis que se acaba de iniciar, sino hacer reflexiones que sirvan de acicate para el resto de tareas a realizar durante este periodo.

Horiek horrela, hau da gogoeta horiek jasotzen dituen IRADOKIZUNA:

Por todo ello, presentamos esta SUGERENCIA que recopila todas estas consideraciones:

1.- Turismoaren karga-ahalmena.

1.- Capacidad de carga turística.

Turismoa ez da jarduera kaltegabea. Eragin handia du natura-ingurunean, harrera-komunitateetan edo tokiko ekonomietan. Eragin hori positiboa edo negatiboa izatea jardueraren jasangarritasunaren araberakoa izango da.

El turismo no es una actividad inocua. Tiene un gran impacto en el medio natural, en las comunidades de acogida o en las economías locales. El hecho de que este impacto sea positivo o negativo dependerá de la sostenibilidad de la actividad.

Gaur dena da jasangarria, baita turismoa ere. Turismo jasangarria denon ahotan dago, baina jasangarritasunak mugak dakartza. Hau da, turismoak muga batzuk ditu, eta muga horiei karga-ahalmena edo harrera-gaitasuna esaten zaie. Turismoaren Mundu Erakundeak (orain ONU Turismo) honela definitu zuen:

Hoy todo es sostenible, incluso el turismo. El turismo sostenible está en boca de todos, pero la sostenibilidad supone establecer limitaciones. Es decir, el turismo tiene unos límites que se denominan capacidad de carga o capacidad de acogida. La Organización Mundial del Turismo (ahora ONU Turismo) la definió de esta forma:

> “Karga-ahalmenaren kontzeptuak bisitari-kopurua eta lor daitekeen garapen-maila termino neurgarrietan ezartzen saiatzen da, baliabideentzat egoera kaltegarririk sortu gabe (...)
>
> Natura-inguruneari eta ingurune artifizialari kalte fisikorik egin gabe, komunitateari eta tokiko kulturari kalte sozial/ekonomikorik eragin gabe edo garapenaren eta kontserbazioaren arteko oreka justua kaltetu gabe lor daitekeen gaitasuna da” (TME, 1992)

> «El concepto de capacidad de carga trata de establecer en términos mesurables el número de visitantes y el grado de desarrollo que es susceptible de alcanzarse sin que se produzcan situaciones perjudiciales para los recursos (…)

Es la capacidad que se puede alcanzar sin daño físico para el medio natural y para el medio artificial, sin daño social/económico para la comunidad y para la cultura locales o sin perjudicar el justo equilibro entre desarrollo y conservación».(OMT, 1992)

2.- Donostiako 2017-2021 Turismoko Zuzendaritza Plana

2.- Plan Director de Turismo 2017-2021 de San Sebastián

Karga- edo jasate-ahalmena oso kontzeptu erabilia da ingurumen-zientzietan, eta, oro har,ingurune jakin batek habitata (baliabide naturalak) degradatu gabe jasan dezakeen gehieneko populazio-tamaina deskribatzen du. Kontzeptua ez da berria, eta ikusi dugun bezala, hamarkadak dira turismoaren esparruan ere erabiltzen dela. Donostiako 2017-2021 Turismoko Zuzendaritza Planak jada jasotzen zuen,

La capacidad de carga o capacidad de acogida es un concepto muy utilizado en las ciencias ambientales, que generalmente describe el tamaño poblacional máximo que un entorno determinado puede soportar sin degradar el hábitat (de recursos naturales). Este concepto no es nuevo, y tal y como hemos visto, hace décadas que se usa también en el ámbito del

adibidez:

"Los impactos (del turismo) son de distinto tipo y están relacionados con diferentes dimensiones de la capacidad de carga o capacidad de acogida del destino. La capacidad de carga se define como el umbral más allá del cual la actividad turística es insostenible porque sobrepasa los límites considerados óptimos o no dañinos. El concepto de capacidad de carga tiene diferentes dimensiones: dimensión física o de soporte, medioambiental, social, perceptual, económica, funcional... Y aunque todas ellas están interrelacionadas resulta necesario identificar la dimensión o dimensiones claves en el destino considerado y determinar para cada una de ellas los umbrales de uso turístico máximo, umbrales variables que deben ser objeto de ciertos niveles de consenso ciudadano" (Visit-Bizi 2017-2021, 37.or.)

Donostiako EH bilduren iritziz, 2017-2021 aldirako planean jasotako definizio horrek gaiari behar bezala heltzeko ezinbestekoak diren hiru alderdi aipatzen ditu:

2.1.- Turista-kopurua baino gehiago, turismo-jarduera neurtu behar da.

Turista kopuruak ingurune jakin batean izan dezakeen eragina ukaezina da. Everesten edo Gaztelugatxen gertatzen ari dena ezagutzen dugu, baina baita hemen bertan ere, Parte Zaharrean. Masifikazioak auzoaren eguneroko bizitza baldintzatu du, eta turista-taldeak erregulatzeko ahaleginak, esaterako, horri erantzuten dio.

Baina arazoa, eta, beraz, karga-ahalmena turista kopurura mugatzea, akatsa litzateke. Masifikazioa da turistifikazioaren ondorioetako bat, baina turistifikazioa bisitari askorekin edo gutxirekin gara daiteke. Turistifikazioa da turismo-erabilerarik ez zuten baliabideak turismo-gai bilakatzen dituen prozesua, hala nola etxebizitza bat ostatu turistiko bihurtzea. Donostiarrok gure egunerokoan erabiltzen ditugun baliabideez ari gara, eta baliabideak mugatuak direnez, hazkunde turistikoak baliabide horiek birbanatzera behartzen du.

Beraz, turista kopurua ez ezik, donostiarren ongizatea bermatzen duten baliabideen erabilera turistikoa ere mugatu behar da.

2.2.- Donostian funtsezkoak diren dimentsioak identifikatu behar dira.

turismo. Por ejemplo, el propio Plan Director de Turismo 2017-2021 de San Sebastián ya lo recogía:

«Los impactos (del turismo) son de distinto tipo y están relacionados con diferentes dimensiones de la capacidad de carga o capacidad de acogida del destino. La capacidad de carga se define como el umbral más allá del cual la actividad turística es insostenible porque sobrepasa los límites considerados óptimos o no dañinos. El concepto de capacidad de carga tiene diferentes dimensiones: dimensión física o de soporte, medioambiental, social, perceptual, económica, funcional... Y aunque todas ellas están interrelacionadas resulta necesario identificar la dimensión o dimensiones claves en el destino considerado y determinar para cada una de ellas los umbrales de uso turístico máximo, umbrales variables que deben ser objeto de ciertos niveles de consenso ciudadano». (Visit-Bizi 2017-2021, pág. 37)

En opinión de EH Bildu, esta definición recogida en el Plan 2017-2021 hace referencia a tres aspectos imprescindibles para un abordar la cuestión de forma adecuada:

2.1.- En lugar del número de turistas, debe medirse la actividad turística.

El impacto que el número de turistas puede tener en un entorno determinado es innegable. Conocemos lo que está sucediendo en el Everest o en Gaztelugatxe, pero también aquí en la Parte Vieja. La masificación ha condicionado la vida cotidiana del barrio y el intento de regular grupos de turistas, por ejemplo, responde a ello.

Pero el problema, y por tanto, limitar la capacidad de carga al número de turistas, sería un error. La masificación es uno de los efectos de la turistificación, pero ésta puede desarrollarse con muchos o pocos visitantes. La turistificación es un proceso que convierte en productos turísticos recursos que no tenían uso turístico, como la conversión de una vivienda en alojamiento turístico. Estamos hablando de recursos que los donostiarras empleamos en nuestra vida cotidiana, y dado que los recursos son limitados, el crecimiento turístico obliga a redistribuirlos.

Por lo tanto, debe limitarse no solo el número de turistas, sino también el uso turístico de los recursos que garantizan el bienestar de la ciudadanía donostiarra.

2.2.- Identificar las dimensiones clave en San Sebastián.

Turismoaren karga-ahalmena lurraldearekin, ingurumenarekin, baliabideen erabilerarekin, azpiegiturekin, tokiko garapenarekin, kultur tradizioen kontserbazioarekin eta abarrekin lotuta dago. Bestela esanda, turismoaren inpaktuak askotarikoak dira, eta horien arabera zehazten dira helmuga turistiko baten karga-ahalmenaren dimentsioak. Dimentsio bakoitzak bere atalasea (muga) du, eta horien guztien arteko erlazioak emango du helmuga turistikoaren karga-ahalmen osoa.

La capacidad de carga turística está relacionada con el territorio, el medio ambiente, el uso de recursos, las infraestructuras, el desarrollo local, la conservación de las tradiciones culturales, etc. Dicho de otra forma, los impactos del turismo son muy diversos y en función de ellos se determinan las dimensiones de la capacidad de carga de un destino turístico. Cada dimensión tiene su umbral (límite) y la relación entre todas ellas proporciona la capacidad de carga total del destino turístico.

Ohikoan 5 dimentsio aipatzen dira: ekologikoa, fisikoa, ekonomikoa, psikologikoa eta politikoa. Donostiako Udalak iragarri duen lanak ere karga-ahalmenaren 5 dimentsio aztertuko ditu: lurraldea, ekonomia, ingurumena, gizartea eta gobernantza.

Habitualmente, se refieren 5 dimensiones: la dimensión ecológica, la física, la económica, la psicológica y la política. El estudio anunciado por el Ayuntamiento de San Sebastián analizará también 5 dimensiones de la capacidad de carga: territorio, economía, medio ambiente, sociedad y gobernanza.

Premisa batetik abiatzen da EH Bildu: donostiarrak jarri behar dira turismo-politikaren erdigunean. Alde horretatik, bat gatoz indarrean dagoen turismo-planaren jarraibidearekin: “lehenik eta behin, donostiarren bizi-kalitatea bermatu behar da”.

EH Bildu parte de una premisa: colocar a la ciudadanía donostiarra en el centro de la política turística. En este sentido, compartimos la directriz del plan turístico vigente: «en primer lugar, garantizar la calidad de vida de la población donostiarra».

Gauzak horrela, EH Bilduk uste du karga-gaitasunak zehaztu behar duela zenbateraino garatu daitezkeen jarduera turistikoak, tokiko biztanleen bizi-kalitatea kaltetu gabe. Herritarren ongizate-maila eta bizi-kalitatea estuki lotuta daude hiri edo auzo baten bizigarritasunarekin. Donostiako Udalak berak onartzen du hiriko zenbait auzotan turismo-jarduerak oztopatu egiten duela bertako biztanleek eguneroko lanak normaltasunez egitea, eta, beraz, ez dela bateragarria herritarrek hiria eta espazio horiek erabiltzearekin eta gozatzearekin. Eta hori gertatzen denean, esan gabe doa, auzoak eta hiriak bizigarri izateari uzten diote.

En este contexto, EH Bildu considera que la capacidad de carga debe determinar hasta qué punto pueden desarrollarse las actividades turísticas, sin perjudicar la calidad de vida de la población local. El nivel de bienestar y calidad de vida de la ciudadanía están estrechamente relacionados con la habitabilidad de una ciudad o barrio. El propio Ayuntamiento de San Sebastián reconoce que en algunos barrios de la ciudad, la actividad turística interfiere en el normal desarrollo de las tareas cotidianas de sus habitantes y, por tanto, es incompatible con el uso y disfrute de la ciudad y de estos espacios por parte de la ciudadanía. Y cuando esto ocurre, por supuesto, el barrio y la ciudad dejan de ser espacios habitables.

Honenbestez, bi dira Donostiaren karga turistikorako ahalmena zehaztuko duten dimentsioak identifikatzeko erantzun beharreko galderak: zerk egiten du bizigarri hiri/auzo bat? Zer bizigarritasun-aldagaitan du eragina turismo-jarduerak?

Por lo tanto, las preguntas a responder para identificar las dimensiones que van a determinar el potencial de carga turística de San Sebastián son dos: ¿Qué hace habitable una ciudad/barrio? ¿A qué variables de habitabilidad afecta la actividad turística?

<u>2.3.- Turismoaren mugak herritarren adostasunaren mende egon behar dute.</u>

<u>2.3.- Los límites del turismo deben estar supeditados al consenso de la ciudadanía.</u>

Esan bezala, turismoaren karga-ahalmenak hainbat dimentsio ditu. Dimentsio bakoitzak, bestalde, beste hainbeste aldagai ditu. Horietako bakoitzerako turismo-erabileraren gehieneko mugak zehaztu behar dira, eta muga horiek “herritarren nolabaiteko adostasunaren mende egon beharko dute”. Izan ere, eta Donostiako 2017-2021 Turismoko Zuzendaritza Planak adierazi zuzenez, “garrantzitsua da kontuan hartzea eragin turistikoaren neurritasuna eta

Como se ha dicho, la capacidad de carga turística tiene diferentes dimensiones. Cada dimensión, por su parte, tiene otras tantas variables. Para cada una de ellas se deben definir límites máximos de uso turístico que «deberán estar sujetos a cierto grado de consenso ciudadano». Y es que, tal y como señala directamente el Plan Director de Turismo 2017-2021 de San Sebastián, «es importante

balorazioa tokiko gizartearen aldaketarekiko tolerantzia-mailaren araberakoa dela".

Ez dago karga-ahalmen standarrik. Ez da berdina parke natural batean edo hiri-ingurune batean karga-ahalmena ezartzea. Turismo-jardueraren mugak helmugaren ezaugarrien araberakoak dira, eta, batez ere, harrera-gizartearen araberakoak. Muga horiek aldakorrak dira, turismoaren ondorioak bezala, tokiko komunitatearen errealitatea eta beharrak ere aldakorrak direlako. Adibidez, auzo batean hogei ostatu turistiko zentzuzkoak izan daitezke gaur, baina baliteke biharko egunean kopuru hori gehiegizkoa izatea.

Bestela esanda, turismoaren karga-ahalmena kontsentsu bat da, eta helmugako komunitateak adostu behar du noiz gainditzen den muga bat.

3.- Karga-ahalmena eta turismo-jardueraren mugak.

Udal-arduradunek bereziki azpimarratu dute "azterlan honen helburua ez dela bisitarien, turisten edo txangozaleen gehieneko kopuru (muga) zurruna ezartzea, baizik eta hiriko pertsonen fluxuei eta horien ondorioei buruzko informazio zehatza lortzea". Eta informazio zehatza eta eguneratua izatea funtsezkoa da turismo-kudeaketa hobetuko duten erabakiak hartzeko. Baina horretarako hainbat tresna daude, eta karga-ahalmena ez da horietako bat.

Karga-ahalmena neurgailu bat da. Neurgailu horrek adierazten du zenbateraino garatu daitezkeen turismo-jarduerak helmugako baliabideak (naturalak, materialak, ez-materialak) murriztu edo kaltetu gabe. Hau da, karga-ahalmenak turismo-jardueraren mugak zehazten ditu, eta, beraz, helmuga-komunitateak funtsezkotzat jotzen duen dimentsio bakoitzean muga-zenbaki bat ezartzea du helburu.

Ez da ezer berria, azken urteotan turismo-jarduerari lotuta hartutako neurri nagusiak muga-kopuru batean oinarritu baitira. Horien artean daude, adibidez, talde turistikoak arautzea, "bisita gidatuetan gehienez ere 25 lagunek parte har dezaten", edo auzo jakin batzuk ostatu turistikoz gainezka (saturatuta) daudela jotzea, "en el supuesto de justificarse que la proporción plazas turísticas / población residente en ellos supera el índice de 10 plazas turísticas/100 habitantes".

Gauzak horrela, ustezko beldur horiek alde batera uztera animatzen dugu udal-gobernua, eta, aldi

tener en cuenta que la magnitud y valoración del impacto turístico depende del grado de tolerancia de la sociedad local al cambio».

No existe una capacidad de carga estándar. No es lo mismo establecer una capacidad de carga en un parque natural que en un entorno urbano. Los límites de la actividad turística dependen de las características del destino y, sobre todo, de la sociedad de acogida. Estos límites son cambiantes, ya que, al igual que las consecuencias del turismo, la realidad y las necesidades de la comunidad local son cambiantes. Por ejemplo, una veintena de alojamientos turísticos en un barrio pueden ser razonables hoy, pero ese número puede ser excesivo el día de mañana.

En otras palabras, la capacidad de carga turística es un consenso y la comunidad de destino debe acordar cuándo se supera un límite.

3.- Capacidad de carga y limitaciones de la actividad turística.

Los responsables municipales han subrayado especialmente que «el objetivo de este estudio no es establecer un número máximo (límite) rígido de visitantes, turistas o excursionistas, sino obtener información precisa sobre los flujos de personas de la ciudad y sus consecuencias». Contar con información precisa y actualizada es fundamental para la toma de decisiones que mejoren la gestión turística. Pero para ello existen varias herramientas, pero la capacidad de carga no es una de ellas.

La capacidad de carga es un medidor, que indica hasta qué punto las actividades turísticas pueden desarrollarse sin merma o menoscabo de los recursos (naturales, materiales, inmateriales) del destino. Es decir, la capacidad de carga determina los límites de la actividad turística, por lo que tiene por objeto establecer un número límite en cada dimensión que la comunidad de destino considere fundamental.

Nada novedoso, ya que las principales medidas adoptadas en los últimos años en relación con la actividad turística se han basado en un número limitado de ellas. Entre ellos se encuentran, por ejemplo, la regulación de grupos turísticos para que «en visitas guiadas participen un máximo de 25 personas», o considerar que determinados barrios están saturados de alojamientos turísticos, «en el supuesto de justificarse que la proporción de plazas turísticas/población residente en ellos supera el índice de 10 plazas turísticas/100 habitantes».

En esta situación, animamos al gobierno municipal a romper con esos supuestos miedos,

berean, gure hiriaren karga turistikorako ahalmena garatzeko lanetan laguntzeko prestasun osoa erakusten dugu.

4.- Karga-ahalmena politika publikoetan.

Donostiarentzat eta donostiarrentzat funtsezkoak diren dimentsioak identifikatu behar ditugu, eta horietako bakoitzerako erabilera turistikoaren gehieneko mugak zehaztu. Eta hori guztia ahalik eta adostasun handienarekin; izan ere, karga-ahalmena zenbaki- eta zifra-multzo bat baino ez da, berez inolako eraginik ez duena, politika publikoen jarraibide gisa erabili ezean.

Hau da, Donostiaren eta bere auzoen karga turistikorako gaitasunak ezinbesteko jarraibidea izan behar du politika publikoak garatzeko: donostiarren ongizatea bermatzeko neurri prebentiboak eta proaktiboak hartzea ahalbidetzen du, baina baita turismo-jardueraren inpaktu negatiboak lehengoratzeko neurriak hartzea ere.

5.- Donostiaren eta bere auzoen karga-turistikorako gaitasuna.

Ez dago karga-ahalmen bakarra, hainbat baizik, eta bakoitzak tratamendu desberdina behar du. Bada, gauza bera gertatzen da hiriko eremu edo auzo desberdinekin ere.

Turismoa oso jarduera lokalizatua da, eta ez du eragin bera lurralde osoan. Donostian ere errealitate desberdinak ditugu, eta beharrezkoa da analisi-tresna espezifiko bat diseinatzea eta aplikatzea, auzoak jasaten duten turistifikazio-mailaren arabera bereizi eta tratatzeko. Horretarako, adierazle geoerreferentziatuen indize bat sortzea proposatzen dugu: “Donostiako auzoen turistifikazio indizea”. Indize horrek auzo bakoitzaren saturazio-maila edo karga-ahalmena neurtzeko balioko du, baina, batez ere, biztanleria egoiliarren kalteberatasun- edo erresilientzia-maila neurtzeko.

6.- Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

2024ko otsaileko *Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia/San Sebastián referente a los usos de hospedaje* dokumentuak honako hau dio hazkunde turistikoarekin lotutako dinamikei buruz:

> “Así, los citados factores inciden de manera particular en los barrios Antiguo-Ondarreta, Centro y Gros y contribuyen a intensificar el ya de por sí elevado uso y consumo de sus espacios públicos

al tiempo que mostramos nuestra total disposición a colaborar en el desarrollo del potencial de carga turística de nuestra ciudad.

4.- La capacidad de carga en las políticas públicas.

Debemos identificar las dimensiones esenciales para San Sebastián y para la población donostiarra y definir los límites máximos de uso turístico para cada una de ellas. Y todo ello con el mayor consenso posible, ya que la capacidad de carga no es más que un conjunto de números y cifras que, por sí mismas, no tiene efecto alguno si no se emplea como directriz para políticas públicas.

